



Usurbilgo Udala

**TOKIKO GOBERNU BATZARRAK 2020KO AZAROAREN 24EAN
GOIZEKO 9:30EAN EGINDAKO OHIKO BILKURAKO AKTA**

BERTARATUAK:

Alkatea: Agurtzane Solaberrieta Mesa

Zinegotziak: Lur Etxeberria Gurrutxaga eta Beñat Larrañaga Urdanpilleta.

Idazkaria: Irantzu Arrizabalaga Gainza.

Ez dira bertaratu: Joxe Mari Iribar Zapirain eta Itziar Basterrika Unanue.

1.- AURREKO BILKURAKO AKTAREN ONESPENA: 2020/10/27KO OHIKO BILKURA.

Batzarkideek, 2020ko urriaren 27ko ohiko bilkurako akta aho batez onartu dute.

**2.- SANTUENEA 35EAN ERABERRITUTAKO BASERRIARI (ARTZAIENEA/ATXEGANEA)
ETA BERTAN MOLDATUTAKO BI ETXEBIZITZEI LEHEN ERABILERA BAIMENA
EMATEA.**

Esp. Zenbakia: HZ.04/2014-0091

MARIA ANGELES ZABALA ALTUNA eta AMAIA ZABALA ALTUNA andereek, Santuenea 35ean eraberritutako Artzaienea/Atxeganea baserriaren lehen erabilera baimena eskatu du.

AURREKARIAK – ERAIKITZEKO BAIMENA

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2016ko ekainaren 28an, MARIA ANGELES ZABALA ALTUNA eta AMAIA ZABALA ALTUNA andereei, Santuenea 35ko Atxeganea baserriaren egitura sendotzeko eta bertan bi etxebizitza egokitzeko udal baimena ematea erabaki zuen.

OBRAREN EZAUGARRIAK	
Exekuzio materialeko aurrekontua:	296.745,04 €
Obra amaierako ziurtagiria:	296.745,04 €
Obrari dagozkion hobariak:	Indarrean diren Ordenantza Fiskalen araberrako hobariak ez dira aplikagarriak.
Hondakinen Kudeaketarako Azterlana:	Aurrekontua: 4.021,08 €
	Fidantza (%120): 4.825,30 €.



Usurbilgo Udala

LEHEN ERABILERA BAIMENA

Orain berriz, interesatuek, obra amaierako dokumentazioa aurkeztearekin batera, Santuenea 35ean eraberritutako baserriaren (Artzaienea/Atzeganea) lehen erabilera baimena eskatu dute. Hondakinen kudeaketa amaierako DSCak eta amaiera txostena aurkeztu dira.

TXOSTEN TEKNIKOA

Udal arkitektoak, Amaia Illarreta Izeta andereak, aurkeztutako dokumentazioa aztertu ostean, lehen erabilera baimen eskaerari ALDEKO txostena emateaz gain, hondakinen kudeaketarako ezarritako fidantza bueltatzea proposatu du.

Gauzak horrela, txosten teknikoa irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

LEHENDABIZI: Santuenea 35ean eraberritutako baserriari (Artzaienea/Atzeganea) eta bertan moldatutako bi etxebizitzetara (Santuenea 35, A – Santuenea 35, B) lehen erabilera baimena ematea.

BIGARRENA: Hondakinen Kudeaketa egokia bermatzeko 2015eko irailaren 3an ezarritako 4.825,30 €-tako fidantza (IE 36-2015) itzultzeko agintzea kontuhartzailetzari honako kontu zenbakian: ES48 2095 5022 1810 6443 8277.

HIRUGARRENA: Erabakia jakinaraztea interesatuei, udal erroldako arduradunari eta kontuhartzaileari ematea.


Hurrengo puntua gai-zerrendan ez zetorrenez, batzarkideek aho batez gai-zerrendan sartzea erabaki dute. Jarraian, gaia aztertzeari ekin diote.

3.- BERRITZABITARTEA BASERRIA (URDAIAGA 3) ERABERRITZEKO UDAL BAIMENA EMATEA.

Esp. Zenbakia: HZ.04/2020-0249

MARIA JOSEFA BEGIRISTAIN IRAZUSTA andereak, Berritzabitartea baserria (Urdaiaga 3) eraberritzeko udal baimena eskatu du.

OBRAREN EZAUGARRIAK	
Exekuzio materialeko aurrekontua:	249.381,24 €
Obrari dagozkion hobariak:	Indarrean diren Ordenantza Fiskalen arabera



Usurbilgo Udala

	hobariak ez dira aplikagarriak.
Hondakinen Kudeaketarako Azterlana:	Aurrekontua: 2.405,99 €
	Fidantza (%120): 2.887,18 €

TXOSTEN TEKNIKOAK

Eskaera eta aurkeztutako dokumentazioa aztertu ostean, udal arkitektoak, Amai Illarreta Izeta andereak, 2020ko azaroaren 19an honako txostena eman du:

BULEGO TEKNIKOA
Udal Teknikariak Alkateari
OBRA HAUNDIAK
BERRITZABITARTEA BASERRIA (URDAIAGA 3) ERABERRITZEKO
OINARRIZKO PROIEKTUARI TXOSTENA

KOKAPENA: Urdaiaga 3, Usurbil.
ESKAERA DATA: 2020ko uztailaren 20ean
ESKATZAILEA: Maria Josefa Begiristain Irazusta
ESPEDIENTE ZENBAKIA: HZ.04/2019-0249
OINARRIZKO PROIEKTUAREN PEM: 249.381,24EURO
HONDAKINEN KUDEAKETARAKO AZTERLANA: 2.405,99euro -->Fidantza (%120)=
2.887,18euro

AURREKARIAK

- 2020ko uztailaren 20ean Maria Josefa Begiristain Irazusta andereak Berritzabitartea baserria eraberritzeko Oinarrizko Proiektua aurkeztu du obra baimena eskatuz.
- 2020ko abuztuaren 14ean udal arkitektoaren aldeko txostena, obra baimena eman aurretik balizko eremu arkeologikoari dagokion Gipuzkoako Foru Aldundiaren baimena aurkeztu beharraren baldintzapean
- 2020ko urriaren 28an Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Zuzendari Nagusiaren baimena

TXOSTENA

Aurrekarietan azaldu bezala, Maria Josefa Begiristain Irazusta andereak Berritzabitartea baserria eraberritzeko obra baimena eskatu zuen. Udal arkitektoak oinarrizko proiektuari aldeko txostena idatzi zion, obra baimena eman aurretik balizko eremu arkeologikoari dagokion Gipuzkoako Foru Aldundiaren baimena aurkeztu beharraren baldintzapean.

2020ko urriaren 28an GFA-ko Kultura Zuzendari Nagusiaren baimena jaso da udalean. Hortaz, aurreko txostenean ezarritako baldintza betetzat ematen da.

Nolanahi ere, obrei hasiera eman ahal izateko honako baldintza hauek bete beharko dira:



Usurbilgo Udala

- EXEKUZIO PROIEKTUA: Obrak hasi ahal izateko aurrez Exekuzio Proiektua aurkeztu beharko da, ezinbestean indarrean den araudia eta obra baimenaren baldintzak bete beharko dituena. Besteak beste:
 - EKT ETA GAINONTZEKO ARAUDIA: Edonola, indarrean den araudia bete beharko da bai EKT bai aplikagarria den gainontzeko araudiari dagokionean: Tentxio Baxuko Erregelamendua, RITE,e.a.
 - ALTXERETAN ALDAKETAK: Honakoak ikusi dira:
 - X Gaur egungo altxaera enfokatu zuria da. Proposamenak SATE-a jasotzen du, kolore argi eta ilunekin konbinatua. Eraikina lurzoru- ez urbanizagarrian dagoen baserria izanik eta ingurunean duen eragina aintzat hartuta, ondo ikusten da SATE soluzioa, baina koloreak gaur egungoa izaten jarraitu beharko du, zuria alegia.
 - X Kanpo arotzeriak egurrezkoa izan beharko du eta kolore naturalekoa (egurra) hobesten da.
 - X Egungo balkoietako bat kentzen da. Ez dago eragozpenik.
 - X Egungo leihoen konposizioan, kopuruan eta neurrietan aldaketak barneratu dira. Exekuzio Proiektuan altxaeren konposizioa aztertu beharko da, leiho berriak eta daudenen neurri aldaketak bizigarritasun baldintzen betetzeak eragindakoak izan beharko dute eta altxaeren konposizioa eta integrazioa errespetatu beharko dute.
 - X Hego eta ipar altxaeretan leihoetn artean lamak edo antzeko soluzioa marraztu da SATE-aren ordeztu. Ez da egokia ikusten lurzoru ez-urbanizagarrian dagoen baserri batentzat. Altxaera guztiak SATE akabera izan beharko du leihoak/ateak ez diren azaleretan.
 - X Sarbide bakarra egiten da mendebaldeko altxaeratik. Sarrerako ate gainean baserriaren izena jarrita konposizioa egin da. Exekuzio Proiektuan sarbide horren materialak zehaztu beharko da eta edonola baserri tipologiari dagokion elementua izan beharko du, ez hiri lurreko itxurazkoa.
 - X 17. planoko altxaerak ez datoz bat 20. planoko infografiatan jaso diren altxaerekin. Exekuzio Proiektuan proposamena zehaztu eta argitu beharko da eta planoek bat etorri beharko dute.
 - Portxeari dagokionean zer egin nahi den zehaztu beharko da Exekuzio Proiektuan, bai planoetan eta memorian. Edonola, ez da egungo eraikigarritasunaren hazkunderik onartuko. Guztira, baimenduko den azalera eraikiak ezingo du egungoa gainditu (egungo eranskin desegokiak barne kontsideratu gabe).
 - KANPO URBANIZAZIOA: 20. planoko infografiatan Hego-



Usurbilgo Udala

Mendebaldeko altxaeran itxitura zati bat ageri da, oin eta altxaera planoetan eta memorian zehaztu ez dena. Exekuzio Proiektuan kanpo urbanizazioa jaso beharko da, zehaztasun osoz, eta haren baitan ikusiko da itxitura onargarria den ala ez, baita gainontzeko urbanizazioa ere.

- Bizigarritasun baldintzak bete beharko dira
- HONDAKINEN KUDEAKETA AZTERLANA ETA FIDANTZA: Hondakinen Kudeaketarako Azterlanaren arabera, obralan eta eraisketa hondakinen kudeaketaren balorazioa 2.405,99 eurotako da. 112/2012 Dekretuaren 5. artikuluan finkatutakoaren arabera, aurrekontuaren %120ko fidantza jarri beharko da obra baimena ematearekin batean (**2.887,18 €**). Fidantza itzularazteko, obrak amaitutakoan, haren itzultzea eskatu beharko da hondakinen kudeaketa amaiera txostena aurkeztuz (112/2012 Dekretua 6. artikulua). Orohar, bete beharko dira RD105/2008 eta 112/2012 Dekretua, ezinbestean.
- ZUINKETA AKTA: Obra baimena jaso ostean, obrei hasiera ofiziala emateko beharrezkoa izango da Zuinketa Akta izenpetzea.

ONDORIOAK

Goian aipatutakoari jarraiki, Berritza bitartea baserria eraberritzeko obra baimen eskaerari **ALDEKO** txostena idazten zaio. Obrari hasiera emateko goian aipatutako baldintzak bete beharko dira.


Hau da behean izenpetzen duen teknikariaren iritzia, hobe oinarritutako besteren kalterik gabe. Udalari jakinarazten zaiona, dagokion erabakia har dezan.

Usurbilen, 2020ko azaroaren 19an
UDAL ARKITEKTOA
Izta.: Amaia Illarreta Izeta

Eskaera eta aurkeztutako dokumentazioa aztertu ostean, udal aparejadoreak, Felix Aizpurua Arzallus jaunak, 2020ko abuztuaren 26an ondoko txostena eman du:

MANTENU ETA ZERBITZUAK SAILAREN TXOSTENA

ESKAERA: Eraikuntza berriarentzat udal zerbitzuei lotuneen txostena
ESKATZAILEA: Hirigintza saila
KOKAPENA: Berritza bitartea (Urdaiaga 3)
ESP. ZENB: HZ.04/2020-0249



Usurbilgo Udala


TXOSTENA

Urdaiaga 3ko Berritza bitartea baserriko, Udal zerbitzuetako lotuneei buruzko txostena eskatzen du hirigintza sailak.

Ur zikinak: ez dago ur zikinen udal sarera lotunerik

Euri urak: ez dago euri uren udal sarera lotunerik

Ur-hartunea: ur edangarriaren saretik lotunea du baserriak



Horniketaren sare berriaren eta ur-hartunearen baldintzak hurrengoak izatea proposatzen da:

1. Hartunea burutuko da, ur horniketako CTE-DB-HS4 oinarritzko arauen arabera, udal zerbitzu teknikoaren adieraziko duten tokian.
2. Aquarius markako kontagailua gehienez 1" batekoa eta irakurketa modulua instalatuko dira.
3. Ur kontagailua ur sare publikoaren alboan kokatuko da, udal zerbitzu teknikoaren adierazioko duten tokian.
4. Ebaketako giltzak jarriko dira kontagailuen aurretik eta atzetik.
5. Itzultze aurkako balbula instalatuko da.
6. Kontagailua Pan Inter kutxatila baten barruan kokatuko da, udal zerbitzu teknikoek adieraziko duten tokian. Kutxatila babesteko adreiluzko nitxo eraikiko da.
7. Ura hartu baino lehen, instaladoreak prestatu eta Industria sailak onartu eta zigilaturiko hartuneko buletina aurkeztuko da.
8. Sare nagusian ura kendu gabe egingo da hartunea.



Usurbilgo Udala

9. Instalatuko diren hodiak, gaur egun dauden hodian azpitik pasako dira. (Saneamendua, ur sarea, herriko argi sarea, etab.en azpitik hain zuzen.)
10. Obra hasi aurretik, egungo instalazioen kokapena zehaztuko da. Udal instalakuntzak Udal zerbitzu teknikoaren bidez eta beste instalazioak dagokion enpresa hornitzaileen bidez.
11. Hondatzen diren materialak birjarriko dira

2020ko abuztuaren 26an
Zerbitzu eta Mantenua saileko burua
Felix Aizpurua Arzallus

KONTROLARKEOLOGIKOA

Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentuko Kultura Zuzendari Nagusiak, 2020ko urriaren 28an helarazi du Berritzabitartea baserriko erreforma-lanei buruzko teknikarien balorazio-txostena. Hitzez hitz honela dio:

GAIA: Aurreko baimena
LEKUA: Berritza Bitartea 3
HERRIA: Usurbil
INTERESDUNA: Maria Josefa Beguiristain Irazusta
ERREGISTRO ZK: 4712

2020/09/24 datarekin Gipuzkoa Foru Aldundiko Kultura zuzendaritza honetan Maria Josefa Beguiristain Irazusta-k egindako eskaera Usurbilgo Berritza Bitartea 3 baserria egokitzeko lan proiektua aurrera eramanez ahal izateko.

Berritza Bitartea 3 baserria Balizko eremu arkeologikoa izendatua dago Usurbilgo Arau Subsidiarioen Ondare Katalogoan, Nahiz eta baserria eraikuntza modemokoa izan eta balio arkeologikorik ez izan.

Euskal Ondarearen legearen (6/2019 Legea) 65. Artikuluak horrela dio:

- 1.- Aztama arkeologikoak egon daitezkeela uste den eremuetan, orubeetan edo eraikinetan, edo egin nahi diren obren sustatzaileak azterketa bat aurkeztu behar du, hirigintzako lizentzia eman baino lehenago, orubearen edo eraikinaren balio arkeologikoari eta obra-proiektuan izan dezakeen eraginari buruz. Foru-aldundiek arautu egingo dute zein kasutan ez den beharrezkoa izango azterketa hori aurkeztea proiektu arkeologikoa egiteko.
- 2.- Behin azterketa egin eta gero, foru-aldundiak zehaztuko du ea proiektu arkeologikoa beharrezkoa den edo ez, eta, hori guztia ikusirik, obra-lizentziaren aurreko baimena emango du. Proiektu arkeologikoa idazteari eta betearazteari dagokionez, lege honen 67. artikuluan



Usurbilgo Udala

aurreikusten den laguntzen araubidean ezarritakoari jarraituko zaio.

Eraikinak balio arkeologikorik ez duenez, ez da beharrezkoa proiektu arkeologikoa egitea, beraz ez dugu inongo eragozpenik ikusten obra-lizentziaren aurreko baimena ematea.

Donostia, 2020ko urriaren 21an
IDAZKARI TEKNIKOA

Ana Urkola Aranburu

Gauzak horrela, udal teknikariaren txostenak irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

LEHENDABIZI: MARIA JOSEFA BEGIRISTAIN IRAZUSTA andereari, Berritzabitartea baserria (Urdaiaga 3) eraberritzeko udal baimena ematea, ondorengo baldintzapean:

- **Obrak hasi aurretik:**

1. Obrak hasi aurretik **dagokion elkargoak ikus-onetsitako Exekuzio Proiektua** aurkeztu beharko da, udal arkitektoak zein udal aparejadoreak aipatutakoak barneratuz.
 - **EKT ETA GAINONTZEKO ARAUDIA:** Edonola, indarrean den araudia bete beharko da bai EKT bai aplikagarria den gainontzeko araudiari dagokionean: Tentxio Baxuko Erregelamendua, RITE,e.a.
 - **ALTXERETAN ALDAKETAK:** Honakoak ikusi dira:
 - Gaur egungo altxaera enfokatu zuria da. Proposamenak SATE-a jasotzen du, kolore argi eta ilunekin konbinatua. Eraikina lurzoru-ez urbanizagarrian dagoen baserria izanik eta ingurunean duen eragina aintzat hartuta, ondo ikusten da SATE soluzioa, baina koloreak gaur egungoa izaten jarraitu beharko du, zuria alegia.
 - Kanpo arotzeriak egurrezkoa izan beharko du eta kolore naturalekoa (egurra) hobesten da.
 - Egungo balkoietako bat kentzen da. Ez dago eragozpenik.
 - Egungo leihoen konposizioan, kopuruan eta neurrietan aldaketak barneratu dira. Exekuzio Proiektuan altxaeren konposizioa aztertu beharko da, leiho berriak eta daudenen neurri aldaketak bizigarritasun baldintzen betetzeak eragindakoak izan beharko dute eta altxaeren konposizioa eta integrazioa errespetatu beharko dute.
 - Hego eta ipar altxaeretan leihoetn artean lamak edo antzeko soluzioa marraztu da SATE-aren ordeiz. Ez da egokia ikusten lurzoru ez-urbanizagarrian dagoen baserri batentzat. Altxaera guztiak SATE



Usurbilgo Udala

- akabera izan beharko du leihoak/ateak ez diren azaleretan.
 - Sarbide bakarra egiten da mendebaldeko altxaeratik. Sarrerako ate gainean baserriaren izena jarrita konposizioa egin da. Exekuzio Proiektuan sarbide horren materialak zehaztu beharko da eta edonola baserri tipologiari dagokion elementua izan beharko du, ez hiri lurreko itxurazkoa.
 - 17. planoko altxaerak ez datoz bat 20. planoko infografiatan jaso diren altxaerekin. Exekuzio Proiektuan proposamena zehaztu eta argitu beharko da eta planoek bat etorri beharko dute.
- Portxeari dagokionean zer egin nahi den zehaztu beharko da Exekuzio Proiektuan, bai planoetan eta memorian. Edonola, ez da egungo eraikigarritasunaren hazkunderik onartuko. Guztira, baimenduko den azalera eraikiak ezingo du egungoa gainditu (egungo eranskin desegokiak barne kontsideratu gabe).
 - KANPO URBANIZAZIOA: 20. planoko infografiatan Hego-Mendebaldeko altxaeran itxitura zati bat ageri da, oin eta altxaera planoetan eta memorian zehaztu ez dena. Exekuzio Proiektuan kanpo urbanizazioa jaso beharko da, zehaztasun osoz, eta haren baitan ikusiko da itxitura onargarria den ala ez, baita gainontzeko urbanizazioa ere.
 - Bizigarritasun baldintzak bete beharko dira
 - Eraikiko diren ur-zikinen, euri-uren eta ur-edangarriaren hartuneko lotuneko puntuak adierazten duten informazioa (Planoak, xehetasunak, memoria...).
 - Ur-edangarriaren kontagailuen kokapena eta informazioa (Planoak, xehetasunak, memoria...).
2. Hondakinen Kudeaketarako Azterlanaren arabera, obralan eta eraisketa hondakinen kudeaketaren balorazioa 2.405,99 eurotako da. 112/2012 Dekretuaren 5. artikuluan finkatutakoaren arabera, aurrekontuaren %120ko fidantza jarri beharko da obra baimena ematearekin batean (2.887,18 €). Fidantza itzularazteko, obrak amaitutakoan, haren itzultzea eskatu beharko da hondakinen kudeaketa amaiera txostena aurkeztuz (112/2012 Dekretua 6. artikulua). Orohar, bete beharko dira RD105/2008 eta 112/2012 Dekretua, ezinbestean.
- 2.887,18 €-ko fidantza**, Kutxabankeko 2095 5069 07 1060024832 kontu korrontean sartuko da, interesatuaren izen-abizenak eta “*Fidantza: HZ.04/2020-0249*” jarriaz kontzeptuan.
- Obrak hasteko, udal aparejadorearekin ZUINKETA AKTA izenpetu beharko da.



Usurbilgo Udala

- ESTudio JM ARTropia taldeko Alfonso López García eta Juan Martín García arkitektoek 2020ko ekainean idatzitako Proiektuari egokiturik egingo dira obrak, beti ere, jarraian aipatuko diren eta udal arkitektoak zein udal aparejadoreak beraien txostenetan ezarritako baldintzekin kontraesan batean sartu gabe.
- Zerbitzu eta azpiegiturei dagokionez, udal aparejadoreak ezarritako baldintzak beteko dira.
- Uren isurketa indarrean dagoen arazketa Lege eta Araudiari lotetsiko zaio.
- Fosa septika bat ezarriko da, ur zikinak isuri aurretik bertan jasoz. Fosa Septikoari dagokionean, etxe horretako bizilagunen eta beharren proportzioan eraikiko da.
- Edonola, Usurbilgo Arau Subsidiarioen Testu Bategina, EKT, Tentsio Baxuko Elektrindarraren Erregelamendua eta indarrean den aplikaziozko araudia bete beharko da.
- OBRA BAIMENAREN EPEAK:
 - Obra hasteko epe gehiengoa: 6 hilabete.
 - Obra geldituta egon daitekeen epe gehiengoa: 6 hilabete.
 - Obraren egikaritze epe gehiengoa: urte 1.
- Behin obrak bukatu ostean, eta Lehen Erabilera baimena eskatuko da ondorengo dokumentuz lagundurik:
 - Obren Zuzendari Teknikoak izenpetu eta dagokion Kolegioak bisaturiko Amaiera Ziurtagiria edo obra lanen bukaeraren egiaztagiria, lan horiek lizentziaren funtsa den proiektuaren arabera gauzatu direla adieraziz, ezarriko ziratekeen baldintza bereziak ere kontutan izanda.

Obralanean Zuzendariak izenpetu eta dagokion Kolegioak oniritzitako azken likidazioa, lan eta instalazioen egiazko kostea adieraziz.
 - Egiaz burututako obra lanen planoak, lizentziaren funtsa zen proiektuari galdatzen zitzaizkion eskalez eta xehekapen mailaz.

1/200 edo 1/500 eskaladun udal kartografiaren gainean, lur zatiaren behin betiko egoeraren planoak ere aurkeztuko da, burututako eraikuntza eta hirigintzako obra lanak bertan jasoz eta ondoriozko sestra berriak aipatuz.
 - Eraikin edo instalazioen kanpoko aldean argazkiak, 13 x 18 cm. takoak, atzealdean baimenaren titularrak, obra lanaren Zuzendariak eta proiektuaren egileak izenpetuta, errealitatearekin bat datozeela adieraziz.
- Lege arau eta ordenantzen arabera, obra egiteko baimenak balioa izatekotan,



Usurbilgo Udala

baimenduak bete beharreko baldintza orokorrak hauek dira:

- Eraikuntzako Ordenantza orokorrak beteaz egingo da obra.
- Euskararen Udal Ordenantzaren 41. atalak dioenari jarraituta, obra garaian beharrezko diren trafiko seinale eta iragarpenak euskaraz jarriko dira.
- Obra egin bitartean inor kaltetuz gero, ezingo du baimenaz baliatu kalteen erantzukizun zibila ekiditeko.
- Indarrean dauden lege eta ordenantzen arabeko segurtasun neurriak beteko dira.
- Baimena hau hirugarrenen kalterik gabe eta jabetzaren salbuespenean ematen da.

BIGARRENA: Erabaki honen berri interesatuari eta Kontuhartzaileari emango zaio.

Eta eztabaidarako gaiak amaiturik, alkateak batzaraldia bukatutzat eman du, goizeko 9:50etan bilera agiri hau jaso da, batzordekideek izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.